

SORMEN DIGITALERA KO  
**BEKA  
DEIALDIA**

**3. EDIZIOA**

**10.000€**

2026KO LORALDIA FESTIBALEAN AURKEZTEKO  
PROIEKTU DIGITAL BATEN PROPOSAMEN  
ARTISTIKOA BILATZEN DUGU

INFORMAZIOA LORALDIA.EUS WEBGUNEAN

**LORALDIA** EUSKAL KULTURA GAUR

# LORALDIA SORMEN DIGITALA BEKAREN HIRUGARREN EDIZIOAREN OINARRIAK

Loraldiak sormen digitaleko bekaren hirugarren edizioaren deialdia aurkezten du.

## XEDEA, BALDINTZAK ETA DIRU LAGUNTZAREN HELBURUA

Deialdi honen helburua, euskarazko kultur digitaleko sorkuntzarako beka prozedura arautzea da.

Beka honen helburuak dira:

- Euskarazko sorkuntza digitala sustatzea eta sortzaile digitalen lana ezagutzera ematea;
- Ingurune digitalean euskarazko eduki gehiago egoteko aukera eskaintzea.

Kultur sorkuntzaren barruan arlo guztiak onargarriak dira: musika, arte eszenikoak, arte plastikoak, dantza, komikigintza, bertsolaritza, gastronomia, rol jokoak, Interneteko baliabideak, audioa ...

Aurkez daitekeen proposamena diziplina bat edota diziplinen arteko uztarketa izan daiteke.

Beka honek bi urrats ditu: sorkuntza lana bera eta sorkuntzaren emaitza, 2026ko hasieran aurkeztea, Loraldia Festibalaren baitan edo aparteko ekintza gisa.

Lana aurkezterakoan kontuan izan:

- Proiektuaren helburua, esan bezala, euskarazko eduki eta baliabide digital bat sortzea da. Ingurune digitala izan behar du proiektuaren

zergatia, euskarria, baliabide nagusia. Hau da, helburua ez da proiektu analogiko baten digitalizazioa, baizik eta beren beregi ingurune digitalerako sortutako egitasmoa izan behar da.

- Jatorrizko sormen lana izan behar da.
- Ekinaldia digitala edo areto batean erakustekoa izan daiteke. Baina ez da beharrezkoa ikuskizun, ekinaldi, ekitaldi eta abar presentziala sortzea.
- Hitzak barne dituen sormen lana bada, euskaraz izan behar da.
- Sorkuntza lana bera eta emaitza nola plazaratuko den jaso beharko dira aurkezten den proposamenean.

## **LORALDIA SORMEN DIGITALA BEKAREN ONURADUNAK**

- Edozein sortzaile euskaldun aurkez daiteke.
- Banaka zein taldeka.
- Bakarkako lana edo talde lana izan daiteke. Lanen bat taldean aurkezten bada, taldeak pertsona bakarra aukeratuko du taldearen ordezkari.
- Eskatzaileak euskaraz komunikatzeko gaitasuna izan behar du.
- Eskatzaileak 18 urtetik gora eduki beharko ditu eskabidea egiterakoan.
- Eskatzaile bakoitzak proiektu bakarra aurkez dezake.

## **BEKAREN EKARPEN EKONOMIKOA**

Loraldia Sormen Digitala Bekaren ekarpena 10.000,00 € izango da.

Sorkuntza prozesua eta aurkezpena lagunduko dira. Proiektu bakarrari emango zaio eta lehiaketa bidez aukeratuko da.

Epaimahaiak aurkeztutako proiektuen artean nahikoa kalitate ez dagoela ikusiko balu, beka ez ematea erabaki dezake.

Loraldiak egingo duen diru ekarpena adierazitakoa izango da. Proiektuaren tamaina dela, dimentsioa dela, bidean zor daitezken kasuistikak direla, Loraldiak ez du diru gehiago jarriko.

## **BESTE DIRU LAGUNTZA BATZUEKIN BATERAGARRITASUNA**

Loraldiak eskaintzen duten beka, helburu berarekin ematen diren beste edozei diru-laguntzekin bateragarria izango da. Hori bai, onuradunak aurkeztutako beste diru-laguntzen berri eman beharko dio Loraldiari.

## **EPEAK**

- Aurkezteko lehen eguna: 2024ko irailaren 10a.
- Aurkezteko azken eguna: 2024ko urriaren 18a.
- Bekaren hiru egitasmo finalisten aurkezpenak: 2024ko urriaren 29-31 artean.
- Ebazpena egiteko epea eta interesatuei komunikatzea: 2024ko azaroaren 11a.
- Ebazpena publiko egitea: 2024ko azaroaren 14a.
- Beka irabazleak 12 hilabete (2024ko abendutik 2025eko abendura) izango ditu proiektua martxan jartzeko. Loraldiak baliabideak jartzeko konpromisoa hartuko du, sortzailearekin akordio (aurrekontua eta kultur edukiak zehaztuz) bat sinatu ondoren.

## **ESKARIA EGITEKO PROZEDURA**

Eskaria internet bidez egingo da, [Loraldiak ezarritako inprimakia betez](#).

Eskabidea egiteko epea deialdia egiten den egun berean hasi eta 2024ko urriaren 18ra arte luzatuko da.

Eskabidearen inprimakian agertzen diren eduki eta eremuak bete beharko dira, besteak beste:

- Eskatzailearen NANaren zenbakia (edo talde ordezkariarena).
- Proiektua originala dela ziurtatuz eta beste diru-laguntzaren bat jaso edo eskatu bada aitortza.
- Sortzailearen kurrikuluma eta taldea bada taldeko kide guztiena.
- Proiektuaren azalpen txostena: deskribapena, helburuak, motibazioa, garapenaren plangintza, aurrekontua... Aurrerago adierazten da txosten horrek jaso behar dituen edukiak.

Inprimakiak azalpenak eman behar diren eremuetan aparteko dokumentuak igortzea ahalbidetuko du. Aparteko dokumentuak PDF formatoan argitaratuko dira.

Eskatzaileak eginiko eskabideak akatsak balitu, horiek zuzentzeko 10 eguneko epea emango zaio, jakinarazpena bidaltzen denetik.

## **Proiektuaren txostenean jaso beharreko informazioa**

Eskatzaileek Loraldiak zabalduetako inprimaki digitalaren bidez parte hartuko dute deialdian.

Inprimaki horretan eskatutako informazioa dagozkien eremutan jasotzeaz gain, proiektuaren azalpena bilduko duen dokumentua erantsi beharko dute.

Dokumentu horrek honelako baldintzak eta ezaugarriak bete beharko ditu:

- Gehienez ere 10 orri izango ditu.
- Testua Arial tipografian idatzita egongo da, 12 puntutako tamainan.
- Edukia: proiektuaren azalpenean puntu hauek azalduko dira:
  1. Proiektuaren deskribapena eta sinopsia, hala badagokio
  2. Zein modutan betetzen dituen deialdiak ezarritako bi helburuak
  3. Lantaldea: parte hatzaileen curriculum vitae laburra
  4. Helburuak eta motibazioa
  5. Lantzen dituen diziplinak
  6. Zein publikoari zuzenduta dagoen
  7. Nola gauzatuko den
  8. Garapenaren plangintza

- 9. Aurrekontua
- 10. Behar teknikoak

## INPRIMAKIA

[Hemen sakatu](#) deialdian parte hartzeko inprimakia betetzeko.

## EPAIMAHAIA

Epaimahaia gehienez 6 kidez osatuta egongo da:

- Loraldiako 4 kide
- Epaimahaiak, hala behar izanez gero, euskal kulturako edota mota ezberdinetako ekoizpen digitaletan adituak diren beste bi adituen txosten edo iritzia eska dezake.

Jarraipen batzordea eratuko da, proiektua behar bezala garatzen dela ebaluatzeko eta bermatzeko. Egokitzapenik edo aldaketarik proposatuko balitz, batzorde horri dagokio proposamenak baimentzea.

Oinarrien interpretazioaren harira, sor daitekeen edozein zalantza, epaimahaiak argituko du. Proposamena egiterakoan edozein zalantza, idatziz bidali eta idatziz erantzungo da komunikazioa@loraldia.eus helbidean.

## BALORAZIO IRIZPIDEAK

- Aurkezten den proposamen guztien artean Loraldiak aukeratuko du proiektuaren xedeekin bat datorren egitasmorik hoberena eta 2026ko Festibalaren edizioan aurkeztuko du.
- Baloraziorako irizpideak:
  - Proiektuaren kalitatea
  - Gaitasun berritzailea eta originaltasuna

- Proiektuaren hedatze ahalmena
- Aurrez aurreko proiektuaren defentsa. Elkarrizketa hau online egingo da urriak 29-31 artean

## **EBAZPENA PROZEDURA ETA JAKINARAZPENA**

- Epaimahaiak aurkeztutako lanen artean hiru aukeratuko ditu. Hauek proiektuaren defentsa egin beharko dute epaimahaiaren aurrean.
- Loraldiak urriaren 25ean komunikatuko die parte hartzaile guztiei aurrez aurreko aurkezpena egiteko hautatuak izan diren edo ez.
- Aukeratutako 3 egitasmo finalistek urriaren 29-31 artean, Loraldiak zehazten duen egunean eta proiektu bakoitzeko arduradunekin lotuko duen moduan, onlineko formatoan aurkezpena egingo dute.
- Behin aurkezpenak eginda, epaimahaiak erabakia hartuko du, eta proiektua aurkeztu dutenei jakinaraziko die.
- Epaimahaiak hartutako erabakiaren kontra, ez da egongo alegaziorik aurkezteko aukerarik.
- Erabakia telefonoz edo posta elektronikoz jakinaraziko zaie eskatzaileei.
- Loraldiak irabazleari komunikatuko dio azaroaren 11an eta baldintza guztiak betetzen direla ziurtatuko du.
- Loraldiak bere komunikazio baliabideen bidez bekaren irabazlea zein den iragarriko du azaroaren 14an.
- Bekaren onuradunak Loraldiak eskatuko dituen ekintza edo aurkezpenetan parte hartzeko prest egon beharko du.

## **LORALDIA ETA BEKAREN ONURADUNAREKIN HITZARMENA SINATZEA**

Behin bekaren onuraduna zein izango den ebatzita eta onuradunak onartuta, Loraldia eta onuradunaren artean hitzarmen bat sinatuko da.

Hitzarmenak baldintza guztiak jasoko ditu eta bi aldeentzat loturagarria izango da.

## **SORMEN DIGITALA BEKAREN ORDAINKETA**

Beka 3 alditan ordainduko da: % 30a ebazpena onartzean, % 40a handik sei hilabetera, eta azken % 30a lana plazaratu ondoren.

Irabazleak proiektua gauzatu ez balu, aurrerakin gisa jasotako diru-kopurua itzuli beharko dio Loraldiari.

## **SORMEN DIGITALA BEKAREN ONURADUNAREN BETEBEHARRAK**

- Proiektua esandako eran eta epeetan gauzatzea.
- Diruz lagundutako jarduera burutzeko behar diren baimen, lizentzia, aplikazioak eta abar guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.
- Proiektua sortzeko onuradunak webgune, aplikazio, podcast... edo behar/nahi duen baliabide digitala sor ditzake. Baliabide horrek sortutako gastuak onuradunak ordaindu beharko ditu (aplikazioak, lizentziak, domeinuak, ostataratzea...).
- Onuradunak bere sormen lana jendaurrean lehenengoz Loraldian edo Loraldiako arduradunek ezarritako moduan eta unean aurkeztea.
- Lanaren garapena egiten den bitartean, onuradunak hiru txosten bidaliko dizkio Loraldiari. Txosten hauen helburua plangintza betetzen dela bermatzea da. Eta data hauetan helaraziko dio Loraldiari: 2025eko apirilean, 2025eko irailean eta 2025eko abenduan.
- Onuraduna prest egon behar da Loraldiak eskatuko dizkion behar beste bilerak egiteko.
- Lanak 2025eko abenduaren 31rako amaituta egon beharko du eta 2026ko Loraldian aurkeztuko da lehenengoz (martxoan). Aurkezpena ingurune analogikoan, digitalean edo bietan gauzatu daiteke.



2026ko otsailan zehar aurkezpen ekinaldian estreinatzeke edota ingurune digitalean argitaratzeko moldaketa eta prestaketak egingo dira.

- Sormen, produkzio edota lan teknikoetarako Euskal Herriko teknikariak hobetsiko dira.
- Antolatzaileak (Loraldiak) bere logoak ezarriko ditu lanaren zabalkunderako euskarrietan.
- Bekaren onuradunak lana berriro eskaintzeko aukera izango du, nahi duen eran. Beti Loraldiaren sormen digitaleko bekarekin sortu zela aipatuko du, kredituetan edo dagokion formatuan.

## ITZULKETA

Onuradunak kontratu pribatua sinatuko du Loraldiarekin eta jasotako diru-laguntza itzuli beharko du, ezarritako baldintzak ez baditu betetzen.

Onuradunari eskatuko zaizkion txostenetan prozesuaren garapena jasoko da eta horrek adieraziko du ea baldintzak betetzen ari diren.

## LANAREN HEDAPENA

Deialdi honetan parte hartzeak, eskatzaileak honako zabalkunde baldintzak onartzen dituela esan nahi du:

- Loraldiak, onura gabeko asmoz, edozein formatutan (paperean edo digitalean) argitara dezake proiektuari buruzko informazioa.
- Loraldiak sormen lanen irudiak erabil ditzake, zabalkunderako webgune, sare sozial edo argitalpenetan, beti ere, bere osotasunean ez bada, eta lanaren jabetza aipatuz.
- Aurkeztutako proiektuaren jabetza intelektualari buruzko erreklamaziorik egongo balitz, proiektua aurkeztu duen pertsona izango litzateke horren erantzule.

## DATUEN BABESA

Europako Legebiltzarreko eta 2016-ko apirilaren 7-an Kontseiluko UE 2016/679 araudian jasotakoarekin bat Loraldiak jakinarazten du, Pribatutasun Politika onartuz, Loraldia Sormen Digitala Bekara proposamena aurkeztuta, baimen informatua, berariazkoa, librea eta agerikoa ematen zaiola Loraldiari emandako datuak tratatzeko.

Datu hauei indarrean dagoen legearen segurtasun neurriak, neurri teknikoak eta antolakuntza neurriak aplikatzen zaizkie. Ez zaie daturik utziko hirugarrenei, legeak agindu ezean.

Datuen tratamendu arduraduna, Loraldia Kultur Elkartea da. NIF zenbakia G95829818, egoitza soziala Agoitz Plaza 1, Bilbao eta kontaktuko posta elektronikoa: [komunikazioa@loraldia.eus](mailto:komunikazioa@loraldia.eus)

## OINARRIAK ONARTZEA

Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

## ZALANTZAK / KONTAKTUA

Zalantzak izanez gero, posta elektronikoko bitartez adierazi behar dira, helbide honetara idatziz: [komunikazioa@loraldia.eus](mailto:komunikazioa@loraldia.eus)